

EAEko IRAKASLEAK

LEKUALDATZE LEHIAKETA

Irakaskuntza ertainean behin-behineko destinoen esleipena gaur edo bihar argitaratuko da. Erreklamazioak edo uko egiteak [hezigune](#) aplikazioaren bidez, [Hezkuntzako web orrian](#) adierazitako datetan.

Maisu-maistrak: laster argitaratuko dela aurreikusten da.

2022-23ko ORDEZKOGAIEN IKASTURTE HASIERAKO ESLEIPENAK

ADI! Hezkuntza Sailak ikasturte hasierako esleipen prozesuaren inguruan behin-behineko informazioa helarazi digu:

- Karrerako funtzionarioek, praktikaldia egin beharko dutenek eta ordezkoezko prozesu berean egingo dute lanpostuen hautaketa.
- Ekainaren bigarren hamabostaldian egitea aurreikusten da.
- Esleipenetan borondatez parte hartzeko epea hasi baino 5 egun baliodun lehenago lanerako prest egoeran izatea ezinbestekoa izango da.
- Ez da lanposturik derrigorrez esleituko.
- Lanpostuak edozein lurraldetan eskatu ahal izango dira.
- Norberak izena emanda dituen zerrendetako lanpostuak bakarrik ikusi ahalgo ditu.
- 2020ko egonkortasunaren Agindua bertan behera utziko dute. Horren ordez, "lehenetasun-eskubidea" berri bat jarriko dute indarrean.
- "Lehenetasun-eskubidea": aurreko urtean irailaren 1etik abuztuaren 31ra arteko lanpostu batean egondako irakasleak, aukera izango du (lanpostuak hutsik jarraituz gero) ezaugarri berdineko lanpostuan jarraitzeko.

* Behin betiko informazioa izan bezain pronto, zabalduko dugu. Bestalde, nahiz eta **STEILAS**ek urtebetez atzeratzea eskatu, Hezkuntza Sailak alde bakarrez "lehenetasun-eskubidea" martxan jartzea erabaki du.

**EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAREN ALDE
BORROKAN!**

www.steilas.eus